

HOBE TALDEAN



HELBURUAK

- 1. Futboleko, eskubaloiko eta mahai-teniseko kirol-klubetan parte hartzen duten gazteak sentsibilizatzea indarkeria matxistaren eta, oro har, indarkeriaren aurrean.**
- 2. Indarkeria matxista eta jokabide sexistak prebenitzeko oinarrizko prestakuntza ematea.**
- 3. Genero-estereotipoak eta -rolak ikusaraztea eta horiei aurre egitea, eta kirol-arloan emakumeen parte-hartzea duintzea.**
- 4. Kirol-klubetan haurren eta gazteen arteko bizikidetza egokirako tresnak eskaintzea.**



METODOLOGIA

Hezkidetzako metodologiak erabiliko dira, genero-estereotipoek ezartzen duten garapen pertsonal mugatua gainditzeko eta pentsamenduan, jarreretan, portaeran, mundu-ikuskeran eta haren interpretazioan aldaketak eragiteko.

Adin bakoitzean egokitutako metodologia berritzaile eta aktiboen bidez jokatu dugu, adin-taldeka bereizita.

Antzerki-teknikak, jolasak, eztabaidak eta talde-dinamikak erabiliko ditugu.



BALIABIDEAK

**HezitzaileA
Espazio irekiak
Papergintzako
materiala: Orriak eta
koloreak**



EBALUAZIOA

Jarduera bakoitzak ebaluazio-irizpideak ditu, eta irizpide horiek kontuan hartuko dira talde bakoitzaren ebaluazioa egiteko. Halaber, gogobetetze-galdetegiak emango zaizkie parte-hartzaile guztiei.

Tailerrak egin eta astebeteko epean, ebaluazioa bidaliko da. Ebaluazio horretan eduki kuantitatiboak eta kualitatiboak jasoko dira, eta, ahal den neurrian, emandako dirulaguntzari buruzko irizpideak betetzen lagunduko da.

